

GOBIERNO DE NAVARRA

PRESIDENCIA, ADMINISTRACIONES
PÚBLICAS E INTERIOR

ECONOMIA Y HACIENDA

CULTURA, TURISMO Y RELACIONES
INSTITUCIONALES

EDUCACION

SALUD

POLÍTICA SOCIAL, IGUALDAD,
DEPORTE Y JUVENTUDDESARROLLO RURAL, INDUSTRIA,
EMPLEO Y MEDIO AMBIENTE

FOMENTO Y VIVIENDA

SEGURIDAD Y EMERGENCIAS

Nafarroako Gobernuak etxebizitzarako higiezin BEZa % 4 jaitsi du

Neurria aurtengo abuztuaren 20tik abenduaren 31 arte indarrean izango da, eta Estatuarekin zerga-ordainketa harmonizatzeko onartzen da

Miércoles, 31 de agosto de 2011

Nafarroako Gobernuak Balio Erantsiaren Zergaren (BEZ) aldaketa bat onartu du gaurko bilkuran; haren bidez, etxebizitzarako diren higiezinak ematean izugarri murriztu den % 4ko tipoa ordainduko dira zergak, orain arte indarrean zegoen % 8aren ordean. Tipo berria 2011ko abuztuaren 20tik abenduaren 31 arte indarrean izango da.

Balio Erantsiaren Zergaren (BEZ) 19/1992 Foru Legearen aldaketa hori Nafarroan BEZaren zerga-ordainketa harmonizatzeko egin da Espainiako Gobernuak erregimen bateratuaren legedian egindako aldaketekin, Foru Erkidego eta Estatuaren arteko Itun Ekonomikoak ezartzen duenaren arabera.

Nafarroako Ekonomia eta Ogasun Departamentuaren aburuz, "aldaketa horrek Foru Erkidegoaren zerga-bilketan izango duen eragina era fidagarrian kalkulatzea oso zaila da; izan ere, ezinezkoa da jakitea bultzadak zer eragin izango duen etxebizitzak erosteko orduan eta, ondorioz, bildutako BEZan, kontuan hartuz, gainera, neurriak aldi baterako zer izaera duen; ia lau hilabete".

Gaurko bilkurako akordio horretan bertan, Nafarroako Gobernuak beste aldaketa bat sartu du BEZaren foru-legean, azken hori erabat nominala; hala, Estatuko Loterien eta Apustuen Erakunde Nazionalari buruzko erreferentziaren ordean "Estatuko Loterien eta Apustuen Estatuko Sozietatea" jarri behar da, hau baita erakunde horren izen berria, eta "tasak" hitzaren ordean, "jokoaren gaineko zergak". Aldaketa horrek zerga-bilketan ez du eraginik.